Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

## Erakunde-adierazpena, 2019ko ekainaren 28an LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna dela eta

2019ko ekainaren 28an LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Egunaren jatorrian dauden Stonewalleko matxinaden 50. urteurrena beteko da. Herritar erantzunaren eta mobilizazioaren oroitzapena, hark sorrarazi baitzuen mundu osoan eskubide zibilen eta eskubide afektibo-sexualen aldeko herritar mugimendua.

Ordutik hona legegintzan izandako aurrerapauso garrantzitsuak eta sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen alorretako aniztasuna gorabehera, oraindik ere diskriminazioa, indarkeria, estigmatizazioa eta gizarte-bazterkeria eragiten dituzte gure gizartean bizirik dirauten LGTBI-fobiak eta heterosexismo baztertzaileak. Funtsezkoa da politika eta ekintza publikoko neurriak jorratzen dituztenean, herri erakunde guztiek aintzat hartzea oraindik ere beharrezkoa dela pertsona homosexual eta transexualen eskubideen babesa sustatzen jarraitzea.

Baina, horrez gain, premiazkoa da sexu- eta genero-aniztasuna balio eta ekarpen sozialtzat jotzea, zeinaren bitartez kolokan jarri ahalko ditugun, bai heterosexualitatea arau sozial gisa, bai eta gizon/emakume binarismoa gizarte-antolakuntzarako eta genero-identitatea modu zorrotz eta hertsian eraikitzeko tresna gisa ere. Horrek gizarte eta pertsona askeagoetara joateko aukera emango liguke, askeago ahalmen eta desirak garatzeko, eta eskubideak bermatzeko.

Helburu horrekin konprometituta dagoelarik, Gasteizko Udalak *Gasteizko LGTBI herritarren errealitateei buruzko DESIRAK PLAZARA diagnostikoa* osatu zuen ikuspegi feminista eta

## Declaración Institucional con motivo del 28 de junio de 2019; Día Internacional del Orgullo LGTBI

El 28 de junio de 2019 se cumple el 50 aniversario de las revueltas de Stonewall en 1969 que dieron origen al Día Internacional del Orgullo LGTBI. Una conmemoración nacida de la respuesta y la movilización ciudadana que dio origen a un movimiento ciudadano por los derechos civiles y los derechos afectivos-sexuales en todo el mundo.

Desde entonces, a pesar de los importantes avances legislativos, la diversidad en la orientación sexual y en la identidad de género continúa siendo causa de discriminación, violencia, estigmatización y exclusión social, debido a la persistencia de actitudes de LGTBIfobia y de heterosexismo excluyente en nuestra sociedad. Resulta esencial que todas las instituciones públicas aborden sus distintas políticas y medidas de acción pública teniendo en cuenta la necesidad de seguir promoviendo la defensa de los derechos de las personas homosexuales y transexuales.

Pero además, urge abordar la diversidad sexo genérica como un valor y un aporte a la sociedad que permita cuestionar la heterosexualidad como norma social y el binarismo hombre/mujer como factor de organización social y de construcción rígida de la identidad de género. Esto permitiría contar con sociedades y personas más libres para desarrollar sus capacidades, deseos garantizar sus derechos.

Comprometido con este objetivo, el Ayuntamiento de Vitoria- Gasteiz elaboró el diagnóstico DESIRAK

Teodoro Dublang margolaria, 25
Pintor Teodoro Dublang, 25-
01008 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 16 16 16
www.vitoria-gasteiz.org

| | |
|---|---|
| intersekzional batetik abiatuta, hartara sexu- eta genero-aniztasunaren alorrean egoki jardun ahal izateko beharrezko informazioa izateko. | PLAZARA sobre las realidades de las personas lesbianas, gais, transexuales, transgénero, bisexuales e intersexuales en Vitoria- Gasteiz desde una perspectiva feminista e interseccional para disponer de la información necesaria para una intervención adecuada en lo que respecta a la diversidad sexual y de género. |
| Diagnostiko hori abiapuntu, *Berdintasunerako politiketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko 2018-2021 aldirako agenda* osatu da, bean bildu direlarik berdintasun-politiken lar-alorrean 2018-2021 aldian abiarazi beharreko esku-hartzeko ildoak eta jarduerak. Horien artean, nabarmentzekoa da Gasteizen LGTBIfobiaren kontrako behatokiaren sorrera: berriki sinatu da horren hitzarmena, LGTBI pertsonen aurkako indarkeria matxistari eta bazterkeriari loturiko egoerak antzemateko eta horien inguruan sentsibilizatzeko eta jarduteko. | A partir del mismo, se ha elaborado la Agenda para la diversidad sexual y de género en las políticas de igualdad que recoge las líneas de intervención y las actuaciones a poner en marcha dentro del marco de trabajo sobre diversidad sexual e identidades de género en las políticas de igualdad en el periodo 2018-2021. Entre ellas, destaca la creación de un Observatorio contra la LGTBIfobia en Vitoria-Gasteiz cuyo convenio se ha firmado recientemente para sensibilizar, detectar y actuar frente a situaciones de discriminación y violencia machista contra las personas LGTBI, a través de la investigación, la prevención y la denuncia. |
| Horregatik guztiagatik, Gasteizko Udalak BERE GAIN HARTZEN DU sexualitate, genero eta desio anitzak ikusarazteko KONPROMISOA, eta LGTBI taldeko pertsonen kontrako diskriminazioari, estigmatizatzeari eta bortizkeriari aurre egitekoa, berdintasuneko politika publikoaren bidez, hain zuzen ere:<br><br>- *Berdintasunerako politiketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko 2018-2021 aldirako agenda* abiaraziaz.<br><br>- LGTBI-fobiaren aurkako behatokia abiaraziaz. | Por todo ello, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz ASUME EL COMPROMISO de actuar para visibilizar las sexualidades, los géneros y los deseos diversos y para combatir la discriminación, la estigmatización y la violencia contra las personas LGTBI desde de la política pública de igualdad:<br><br>- facilitando la implementación de la Agenda para incorporar la diversidad sexual y de género en las políticas de igualdad.<br><br>- poniendo el marcha el Observatorio contra la LGTBIfobia. |